


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ZUBIETA 3



Egilea eta data: Benito Olasagasti, 1883?
Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboaren espedienteetan

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta bosgarren mantsardatu bat, zertxobait atzeraemana dituena (badago txapitula jarraitu bat eraikitzeko 1884ko proiektu bat, 5. oin horri dagokiona). Harlanduzko fatxada.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oin mantsardatua.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.